



MEDIKAZIO AKATSAK MURRIZTEKO ESTRATEGIEN ERAGINKORTASUNA AZTERTZEN

Gratu Amaierako Lana

Maite García de Acilu Sáenz de Ugarte
Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskola
2019-2020 ikasturtea

Hitz kopurua: 5777 hitz

Zuzendaria: Sergio Yuste Muñoz

 **Osakidetzeta**
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

 osakidetzeta

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

*Duela 4 urte ezagutu nituen lagunei,
eskerrik beroenak zuentzat lau urte
hauetan nire alboan egoteagatik.*

#Eutsi

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
HELBURUA	8
METODOLOGIA	9
EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	11
PRESTAKETA FASEAN MEDIKAZIO AKATSAK PREBENITZEKO ESTRATEGIAK.....	11
ADMINISTRAZIO FASEAN MEDIKAZIO AKATSAK MURRITZEKO ESTRATEGIAK.....	13
ONDORIOAK	19
MUGAK.....	20
BIBLIOGRAFIA	21
ERANSKINAK.....	25
I. ERANSKINA: MEDIKAZIO AKATS MOTAK.....	25
II. ERANSKINA: HITZ GAKOEN TAULA	26
III. ERANSKINA: BILAKETA PROZESUA	28
IV. ERANSKINA: FLUXU-DIAGRAMA.....	38
V. ERANSKINA: IRAKURKETA KRITIKOA	39
VI. ERANSKINA: LABURPEN TAULAK	43
VII. ERANSKINA: ZUHAITZ KATEGORIALA	51

SARRERA

Marko teorikoa eta justifikazioa: Medikazio akats bat eragitea erraza da gaur egun, ospitaleratuta dauden pazienteei farmako dosi ugari administratzen baitzaizkie egunero, erizainak direlarik prestaketa eta administrazio hauen arduradunak. Espainian, ospitaleratuta dauden pazienteen %37.4ak medikazio akats bat pairatzen du, ehuneko horren %34.8a prebenigarria izaten delarik. Erizainak farmako hauekin azken kontaktua duten osasun profesionalak izanda, oso garrantzitsua izango da medikazio akats hauek prebenitzeko estrategiak garatzea eta hauen eraginkortasuna zein den aztertzea.

Helburua: Helduen ospitalizazio unitateetan, prestaketa eta administrazio faseetan ematen diren medikazio akatsak murrizteko, erizainek erabili ditzaketen estrategien eraginkortasuna aztertu.

Metodologia: 2009. urtetik aurrera argitaratutako artikulak aztertu ziren helburuari erantzuteko. *PubMed*, *Cinahl*, *Cochrane* eta *Cuiden* izan ziren artikulak bilatzeko erabilitako datu baseak. Horrez gain, eskuzko bilaketa egin zen hainbat editorial eta aldizkari zientifikoetan, bai eta lortutako bibliografiatik ateratako hainbat artikulak hautatu ziren. Azkenean, 16 artikulak erabili zirelarik.

Emaitzak eta ondorioak: kontsultatutako bibliografian aurkitutako estrategiak 2 multzo nagusitan banatu ziren, alde batetik prestaketa fasean akatsak murrizteko baliogarriak ziren estrategiak eta bestetik administrazio fasekoak. Bi faseetan etenaldiak murrizteko estrategiak (txalekoaren erabilera adibidez) eta dispentsadore automatikoak ezartzea aurkitzen ziren prebentzio estrategia gisa. Administrazio fasean ere, aurreko bi estrategiez gain barra kodeen erabilera, profesionalen zuzendutako hezkuntza eta hainbat estrategien konbinaketak (barra kodea + dispentsadore automatikoak) aurkitzen ziren. Estrategia guztiek medikazio akatsak murrizteko ahalmena zutela azalera zuen bibliografiak, eraginkorrenak etenaldiak murrizteko estrategiak eta tekniken konbinaketak zirelarik. Barra kodearen teknologiarik eta dispentsadore automatikoei buruzko iritzi kontraesankorrak aurkitu ziren.

Hitz gakoak: *medikazio akatsak, erizaintza, ospitalizazioa, prebentzioa, administrazioa eta prestaketa*

MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, farmakoak osasun arreta eskaintzen den edozein arreta mailan aurki ditzakegu. Ospitaleratuta egoten diren pazienteak, farmako dosi ugari jasotzen dituzte egunero, hau da, polimedikatutak egon ohi dira, eta horren ondorioz, erizainek lan karga handia jasotzen dute, erizainak direlako farmakoen prestaketa eta administrazioaz arduratzen direnak eta hauekin azken kontaktua izaten dutenak¹⁻³.

Medikazio akatsak *National coordinating council for medication error reporting and prevention-ek (NCCMERP)* horrela definitzen ditu: “*nahigabe egiten diren eta prebenigarriak izaten diren gertaerak, akats hauek farmakoak osasun profesionalen esku daudenean ematen direlarik*”. Gertaera hauen ondorioz, farmakoen erabilera okerra egin daiteke⁴. Erabilera oker honek, askotan, ez du ondorio kaltegarririk ekartzen pazientearentzat, baina %7.2an, kalteak sortzen dizkiote pazienteari. Kalte hauek medikazio akatsei lotutako albo ondorioak deritze, eta %20ean prebenigarriak izaten dira⁵. Otero et al-ek (2006) diotenaren arabera, Espainian ospitaleratuta dauden pazienteen %1.4ak jasan egiten dituzte medikazioari lotutako eta prebenigarriak diren albo ondorio hauek⁶.

Aurretik aipatutako medikazioari lotutako akats hauek 2 taldetan banatu ditzakegu. Alde batetik, pazienteraino iristen ez direnak aurkitzen dira (sasigertaerak), eta beste aldetik, pazienteari heltzen zaizkionak. Azken hauek 2 azpitaldetan banatzen direlarik: pazienteari mina eragiten dioten gertaerak (ondorio okerra) eta minik eragiten ez dioten gertaerak (kalterik gabeko gertakaria)^{7,8}.

Estatu mailan, ospitalizazio arloan ematen diren medikazio akatsen prebalentzia ENEAS (*Estudio Nacional de Efectos Adversos*) ikerketan neurtu zen 2005. urtean. Ikerketa honetan Espainiako 24 ospitalek parte hartu zuten, eta zehaztu egin zen ospitaleratutako pazienteen %37.4ak medikazio akatsen bat pairatzen zuela, eta ehuneko horren %34.8a prebenigarriak izaten zirela. Horrez gain, ikerketan azaleratu egiten zen unitate medikoetan akats hauen intzidentzia altuagoa zela unitate kirurgikoekin konparatuz (%53.8 vs. %22.2), batik bat, bertan dauden pazienteen osasun egoera askoz konplexuagoa delako^{9,10}. Nazional mailan ere medikuntza intentsiboan ematen diren akats ohikoen azterketa egin zen 2007. urtean SYREC deituriko ikerketan. Azken honek azaleratu zuen medikuntza intentsiboan ematen diren akatsen %24.58a medikazioarekin erlazionatuta daudela¹¹.

Farmakoen administrazioa prozesu konplexua da, zeinek hainbat fase dituen eta zeinetan hainbat osasun langilek parte hartzen duten. Jarraian, fase bakoitza zertan datzan eta nork betetzen duen fase bakoitza azaltzen da:

- **Preskripzioaz** medikua arduratzen da, eta pazienteari dagokion medikazioa aukeratzean, bai eta honen emate bidea eta dosia egokia hautatzean datza.
- Farmazeutikoak **transkripzioa** egiten du, eta medikuak preskribatutako medikazioa dagoen balioztatzen du.

- **Dispentsazioaz** farmazialaria ere arduratzen da, eta preskribatutako farmakoa hartzeaz eta dagokion unitatera eramateaz arduratzen da.
- Erizaina da farmakoen **prestaketaz** eta **administrazioaz** arduratzen dena. Ailegatutako medikazioa medikuak preskribatutakoa den egiaztatu behar du. Eta horren ostean, dagokion pazienteari eman behar dio.
- Azkenik, **jarraipen** fasea aurkitzen da. Osasun profesional guztien ardura da, eta farmakoaren eraginkortasuna eta albo ondorioak baloratzean datza^{12,13}.

Medikazio akatsak prozesuaren edozein fasetan eman daitezke, eta fase bakoitzaren arabera akatsak desberdinak izango dira. Akats hauen sailkapena ISMP-k (*Instituto para el Uso Seguro de Medicamentos*) taula batean laburbildu zuen 2008.urtean ([l. eranskina](#))¹⁴.

Nahiz eta edozein fasetan eman daitezkeen akats hauek, ohikoenak preskripzio eta administrazio faseetan ematen diren akatsak izaten dira, akatsen %34a eta %28 izaten direlarik hurrenez hurren. Espainiako medikuntza intentsiboko unitateetan egindako ikerketa batean emaitzek azaleratzen zuten gainerako faseetan ematen ziren akatsen prebalentzia hurrengo zela: transkripzioan %17a, dispentsazioan %15a eta prestakuntza eta jarraipen faseetan %6a¹¹. Beste herrialde batzuetan administrazio faseko akatsen prebalentzia antzekoa da. Chileko ospitale bateko medikuntza zerbitzuan egindako ikerketa batean azaleratu zen akatsen %23.6a ematen zirela administrazio fasean¹⁵. Erresuma Batuan, aitzitik, egindako hainbat ikerketek diotenaren arabera, medikazio akatsen %32.1a administrazio fasean ematen ziren¹⁶.

Aurreko datuak ikusita eta jakinda gure osasun sisteman erizainak direla prestaketa eta administrazio faseen arduradunak, lan honetan administrazio eta prestaketa faseko akatsak kontuan hartzea erabaki zen. Gehienbat erizainok garelako medikazioarekin azken kontaktua dugunak.

Ildo beretik jarraituz, aipatu beharra dago pazientearen segurtasuna pazienteen eskubide bat dela, eta osasun asistentziaren ondorioz eman diren albo ondorioak murrizteko edo ezabatzeke egiten diren jarduera gisa definitzen dela¹⁷. Horrez gain, pazientaren segurtasuna bioetikaren minik ez egin (*primum non nocere*) printzipioarekin erlazionatuta dago, beraz, ematen diogun arretaren ondorioz albo ondorioren bat pairatzen badu pazienteak, printzipio hau ez gaude guztiz betetzen^{17,18}. Pazientearen segurtasuna bermatzeko eta kalitatezko zainketak eskaintzeko asmoz, medikazio akatsak murriztea funtsezko tresna izango da¹⁹.

Hala ere, akatsen jatorria eragile anitzekoa da, akatsak ematean eragile bat baino gehiagok parte hartzen baitute, ez soilik osasun langileak. Hau da, akats hauek ere osasun produktuen egoera okerrarekin edo farmakoak administratzeko edo prestatzeko sistemetan eta materialean dauden akatsengatik ere eman daitezke²⁰.

Jakinda akats hauen jatorria eragile anitzekoa dela, hauek murriztu nahi badira, akats hauen kausak zeintzuk diren jakin behar da, kausa nagusiak 2 direlarik:

- ▶ **Distrakzioak eta etenaldiak:** medikazioaren administrazio bitartean ematen diren distrakzioak dira akats hauen kausa nagusia. Erizainek medikazioa prestatzean edo

administratzean beste osasun langile baten, paziente baten, soinu baten (alarmen, txirrinen...) eraginez etenaldi bat jasaten badute, medikazio akats bat egiteko probabilitate handiagoa izango dituzte. Horrez gain, medikazioa prestatzeko eta administratzeko lekuen artean espazio handia badago, etenaldi gehiago jasateko aukera egongo da.

- ▶ **Lan galkarga:** lan karga handien eraginez, erizainak errazago nekatu egiten dira, eta horren ondorioz, medikazio akatsak eragitea askoz errazagoa izaten da. Hala nola, erizain-paziente ratioa izan behar dena baino handiagoa izatea, hots, Espainia mailan 5,7:1000 ratioan zehaztuta dagoena baino paziente gehiago bere kargu izatea²¹⁻²⁴.

Nahiz eta aurretik aipatutakoak diren kausa nagusiak, badaude medikazio akatsak sortzen dituzten beste faktore batzuk³ :

- ▶ Isoaparienziaren (anpuluek itxura berdintsua izatea) ondorioz, egokia ez den anpulia hartu daiteke eta egokia ez den medikazioa administratu.
- ▶ Erizainek farmakologia eguneratua ez izatea. Hala nola, farmakoen artean sor daitezkeen elkarrekintzak ez ezagutzea eta horren ondorioz pazienteak albo ondorioak pairatzea.

Medikazio akats hauen ondorioz, medikazio akatsei loturiko ondorio okerrak sortzen dira, hala nola, pazienteen ospitalizazio denbora luzatu egiten da eta askotan osasun asistentzia handiagoa jaso beharko dute, honen ondorioz pazienteak akats hauen lehen biktimak bihurtzen direlarik. Horrez gain, medikazio akatsek hau pairatu duten pazienteen heriotza ere ekar dezakete^{23,25}. Espainia mailan, 2011. urtean 240.000 pertsona ospitaleratuak izan ziren medikazio akatsei lotutako albo ondorioen eraginez²⁶. Erresuma Batuan eta Gales-en 6 urtetan zehar egindako ikerketan, eragindako 86.821 medikazio akatsek mina eragin zioten pazienteari, horietako 822-k min larria edo heriotza eragin ziotelarik pazienteari²⁷. Eta Estatu Batuetan, medikazio akatsek 7000 heriotza eragiten dituzte urtero³.

Akats bat gertatuz gero, bigarren biktimak erizainak izango dira. Medikazio akatsak eragiten dituztenean errudun sentitu egiten direlako, eta askotan lotsa ere sentitu egiten dutelako, ez dutelako ulertzen nola egin izan dezaketen horrelako akats bat. Horrez gain, medikazio akats bat eragin duten erizainak jada ez dira beraietaz fidatzen, eta beste akats bat ez eragitearren, jarri behar duten medikazioa askotan erreparatzen dute. Erizainek akats hauek ez dituzte beti jakinarazten, honen arrazoi nagusiak bi direlarik: beste lankideengandik epaituak izatearen beldur izatea eta zigor bat jasotzearen beldur izatea^{28,29}.

Honen guztiaren ondorioz oso garrantzitsua izango da akats hauek prebenitzeko estrategiak aztertzea eta garatzea, alde batetik, medikazio akatsek kolokan jartzen dutelako pazientearen segurtasuna eta beste alde batetik, akats hauen %34.8a prebenigarria izaten delako. Gehienbat erizaintzaren arloan, erizainok garelako medikazioarekin azken kontaktua dugunak, gu garelako medikazioaren prestaketaz eta administrazioaz arduratzen garenak.

HELBURUA

Helduen ospitalizazio unitateetan, prestaketa eta administrazio faseetan ematen diren medikazio akatsak murrizteko, erizainek erabili ditzaketen estrategien eraginkortasuna aztertu.

METODOLOGIA

LAN MOTA

Berrikusketa bibliografikoa.

BILAKETA ESTRATEGIA

Helburuari erantzuteko hainbat bilaketa egin ziren datu base ezberdinetan.

Bilaketa horiek egiteko lehenengo pausua helburuari erantzungo zioten kontzeptuak definitzea izan zen, definituriko kontzeptuak hurrengoak izan zirelarik: medikazio akatsak, erizaintza, ospitalizazioa, prebentzioa, administrazioa eta prestaketa. Behin hauek izanda, deskriptoreak bilatu egin ziren datu base ezberdinetan (*PubMed*, *Cochrane*, *Cinahl* eta *Cuiden*) ([II. eranskina](#)).

Datu base ezberdinetako deskriptoreak lortuta (*PubMed* eta *Cochrane*-n *MeSh*-ak, *Cinahl*-en *Encabezamientos de Cinahl* eta *Cuiden*-en *Palabras Clave*), bilaketa ekuazio desberdinak sortu ziren hitz gakoak *AND* booleanoarekin konbinatuz ([III. eranskina](#)).

Aurrekoari, eskuzko bilaketatik lorturiko artikulua batu behar zaizkio. Izan ere, *ScholarGoogle*-en, hainbat editorialetan (*Elsevier* eta *Science Direct*) eta hainbat aldizkari zientifikoetan artikulua ere bilatu baitziren. Bai eta irakurritako artikulua batzuetako bibliografian agertzen ziren artikulua batzuk ere hautatu ziren.

IRIZPIDEAK

Bilaketa mugatzeko eta helburuari hobeto erantzuten zioten artikulua hautatzeko asmoz, barneratze eta kanporatze irizpide batzuk ezarri ziren.

Barneratze irizpideak

- Argitaratze urteei zegokienez, 2009az geroztik publikatu ziren artikulua soilik erabili ziren, errebisioa ahalik eta eguneratuen egoteko.
- Publikazio mota zela medio, aldizkari zientifikoko artikulua, ikerketa zientifikoak, literatura errebisioak, gida klinikoak eta liburuak erabili ziren.
- Aipatutako publikazioetan agertzen ziren parte hartzaileei begira, helduen ospitalizazio unitateak (>18 urte) hartu ziren kontuan, ZIU-ak barne. Horrez gain, publikazioak erizaintzari begirakoak izan behar ziren, hau da, erizaintza oinarri zuten artikulua hautatu ziren. Farmakoterapiaren faseen artean, administrazio eta prestaketa faseak hartu ziren kontuan bakarrik.
- Hizkuntzari zegokionez, gazteleraz eta ingelesez zeudenak erabili egin ziren, gainerako hizkuntzak menperatzen ez zirelako.

Kanporatze irizpideak

- 2009 urtea baino lehenago publikatu ziren artikulua ez ziren erabili.
- Testu osoa edo *full text* eskuragarri ez zeukan edozein artikulua mota ere baztertu egin zen. Horrez gain, gutunak, posterrak, protokoloak edo tesiak ezta ez ziren kontuan hartu berrikuspen bibliografiko hau egiteko.

- Helduen ospitalizazio unitateei buruzkoak ez zirenak, hala nola, pediatria eta jaioberrien unitateetakoak, larrialdi zerbitzukoak, egoitzetakoak eta arreta primariokoak ere baztertu egin ziren. Erizaintzari bideratuak ez zeudenak eta administrazio eta prestaketa faseak kontuan hartzen ez zituztenak kanpoan utzi ziren.
- Gaztelaraz edo ingelesez ez zeuden testuak ez ziren kontuan hartu gradu amaierako lan hau egiteko.

ARTIKULUEN HAUTAKETA

Egindako bilaketan emaitzak 1.099 artikulua izan ziren. Artikuluak hautatzeko lehen pausua, artikulua guztien izenburua irakurtzean egin zen, *Abstract*-a irakurtzearekin batera. Bazterketa hau egiteko, barneratze eta kanporatze irizpideak hartu ziren kontuan, honen ondorioz 1.007 artikulua baztertu zirelarik. Hurrengo pausua, artikulua *full text*-ean bilatzea izan zen, eta behin artikulua lortuta, lehen irakurketa bete zen. Honen ondorioz, 80 artikulua baztertu ziren, 5 *full text*-a lortu ezin izan zelako eta beste 75 behin testua irakurrita emaitzak idazteko baliogarria zen informazioa aurkitu ez zelako. Lortutako 12 artikulua horiei, eskuzko bilaketari esker eskuratu ziren artikulua batu behar zaizkio, 3 artikulua beste dokumentu batzuen bibliografiatik eskuratu zirelarik, eta beste bat *Journal of Critical Care* aldizkaritik. *ScholarGoogle*-eko, editorialetako eta beste aldizkari zientifikoetan lortutako emaitzetatik ez zen artikulurik hautatu. Azkenean, **16 artikulua** erabili ziren helburuari erantzuteko. Azken pausua, emaitzak idazteko 16 artikuluen irakurketa kritikoa egitea izan zen. Aukeraketa prozesu oso hau fluxu-diagraman laburbilduta aurkitzen da ([IV. eranskina](#)).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Helburuari erantzuteko hautatutako artikuluen gehienak kuantitatiboak izan ziren, 2 izan ezik, hauek ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa (*mixed-method*) nahasten zituztelarik. Artikulu kuantitatiboen artean, ikerketa kuasi-esperimentalak aurkitzen ziren nagusiki, nahiz eta ausazko entsegu kliniko bat eta bi ikerketa paralelo aurkitzen ziren.

Lorturiko artikuluetan aipatzen ziren estrategiak 2 multzo nagusitan bereiztu egin ziren, alde batetik prestaketa fasean eragiten zutenak eta bestetik administrazio fasean eragiten zutenak. Bi faseetan etenaldiak murrizteko estrategiak (txalekoaren erabilera) eta dispentsadore automatikoak aurkitzen ziren prebentzio estrategia gisa. Horrez gain, administrazio fasean akatsak murrizteko barra kodeen erabilera, profesionalen zuzendutako hezkuntza eta hainbat estrategien konbinaketak (barra kodea + dispentsadore automatikoak) aurkitzen ziren. Etenaldiak murrizteko estrategien artean, prestaketa fasean etenaldirik gabeko gunea eta gai horren inguruan profesionalen eskaintako hezkuntza biltzen ziren. Sailkapen hau zuhaitz kategorialean ikus daiteke ([VII. eranskina](#)).

PRESTAKETA FASEAN MEDIKAZIO AKATSAK PREBENITZEKO ESTRATEGIAK

Medikazio akatsen eragile nagusienetarikoa bat etenaldiak eta distrakzioak direnez, **etenaldiak eta distrakzioak murrizteko estrategiak** garatzea funtsezkoa izango da medikazio akatsak murrizteko orduan. Lan honetan bildu den bibliografian etenaldiak murrizteko gehien gomendatzen diren estrategiak bi dira: txalekoaren erabilera eta etenaldirik gabeko gunea ezartzea.

Anthony et al-ek (2010) etenaldirik gabeko gunearen ezarpena prestaketa fasean ematen ziren etenaldiak murrizteko balio zuen neurtu zuten ikerketa kuasi-esperimental batean. Etenaldirik gabeko guneak medikazioa prestatzen zen eremuen inguruan kolore gorriko zintza itsasgarria lurrean jarriz sortu zituzten. Horri esker, prestaketa fasea bitartean ematen ziren etenaldiek esanguratsua izan zen murrizketa jasan zuten ($p=0.03$), etenaldiak %40.9an murriztea lortu egin zelarik. Izan ere, gune isilaren ezarpenaren aurretik 76 etenaldi eman ziren eta ostean, soilik 37 (%31.8 vs %18.8). Hala ere, ikerketak azaldu egiten zuten zinta itsasgarriaren eraginkortasuna epe luzera ez zela eraginkorra, izan ere, itsasgarri hau pixkanaka-pixkanaka askatzen joaten baitzen edo prestaketa lekuak aldatuz joaten zirelako³⁰.

Prestaketa fasean txalekoaren erabileraren eraginkortasuna neurtzeko ikerketa bat aurkitu zen kontsultatutako bibliografian. Atzetik “*Do not disturb, medication round in progress*” zeramaten txaleko hori fluoreszenteak erabili zituzten Verweij eta kolaboratzaileek 2014ean burututako ikerketan. Txaleko hauek ikerketan parte hartu zuten erizain guztiek eraman behar zituzten jantzita medikazioa prestatu eta administratu bitartean. Honen erabilerari esker, etenaldiak murriztea lortu egin zen. Txalekoaren erabilera ezarri baino lehen egindako neurketan, etenaldiak 517 izan ziren, eta ezarpenaren ostean egindako 2 neurketa desberdinetan (lehenengoa 2 aste pasa ostean, eta bigarrena 4 hilabeteren ondoren) 448 eta 112, murrizketak adierazgarriak izan zirelarik ($p<0.05$). Etenaldiak %75ean murriztu egin ziren, gehien murriztu

ziren etenaldiak beste osasun langileek eragiten zituztenak izan zirelarik³¹. Ikerketa honetan parte hartu zuten erizainen iritziz, txalekoaren erabilera beste profesionalengandik jasotzen zituzten etenaldiak murrizteko baliogarria zen, baina ez paziente eta familiarrengandik zetozenak gutxitzeko. Izan ere, erizainak txalekoarekin ikusten zituztenean, horren funtzioa zein zen galdetzen baitzuten. Hori zela medio, erizainek proposatu egin zuten honi buruzko informazioa eman behar zitzaiela bai paziente bai familiarrei ospitaleko sarreran³¹.

Hezkuntza prestaketa faseko etenaldiak murrizteko tresna gisa erabiltzen zela ikus dezakegu Westbrook et al-en (2017) eta Williams et al-en (2014) ikerketetan. Westbrook eta beste kolaboratzaileek (2017) Australian egindako ausazko entsegu klinikoan 227 erizainek parte hartu zuten. Ikerketa honetan, osasun profesionalei hezkuntza saioak eskaini zizkieten bai eta erizainekin tailer interaktibo desberdinak egin zituzten, hauek *“Do not interrupt”* interbentzioa ezagutzeko asmoz eta etenaldien murrizketan eragiten zuten faktoreak ezagutzeko asmoz³². Williams et al-ek (2014) 100 erizainez osaturiko erizaintza taldeari hezkuntza saioak eskaini zizkieten 4 egunetan zehar. Saio hauek medikazio administrazio seguruari eta martxan zegoen proiektuari buruzkoak izan ziren. Saio hauetan landutako informazioa txosten batean bildu egin zen eta atsedean gunean utzi zen, erizainek zalantzak izatekotan, lehen aukera bezala, horra jotzeko asmoz. Horrez gain, ikerketaren zuzendariak erizainei etenaldiei buruzko gida bat sortu zien, hauen aurrean nola jokatu jakiteko³³. Bi ikerketa hauetan prestaketa fasean ematen ziren etenaldien kopurua murriztua ikusi zen^{32,33}. Hala ere, ezin zen jakin hezkuntza eraginkorra izan zen edo ez etenaldiak gutxitzeko, izan ere, bi ikerketek hezkuntza beste interbentzio batzuekin konbinatuz erabiltzen zutelako. Nahiz eta bi ikerketen laginak handiak izan, kontuan izan behar da Westbrook et al-en ikerketan Williams et al-en ikerketan baino 127 erizain gehiagok parte hartu zutela, bai eta Westbrook eta kolaboratzaileek kontrol taldea barneratu zutela beren ikerketan.

Beste ikerketa batek, aurreko hiru teknikekin batera beste interbentzio batzuk ezartzea proposatzen zuen. Williams et al-ek (2014) 5 interbentzio desberdin ezarri zituzten etenaldiak murrizteko asmoz. Bost interbentzio hauek ebidentzian oinarrituak zeuden, eta hurrengoak ziren: 1. erizainei hezkuntza ematea, 2. txalekoaren erabilera, 3. etenaldirik gabeko gunea ezartzea, 4. seinale informatiboak jartzea pazienteen logeletan eta unitatean zehar eta 5. etenaldiei erantzuteko gida sortzea. Interbentzio hauei esker, etenaldiak modu adierazgarri batean ($p < 0.001$) murriztea lortu egin zen, ezarpenaren aurretik eman ziren 254 etenaldiak 68ra murriztea lortuz³³.

Anthony et al-en, Verweij et al-en eta Williams et al-en lanetan soilik interbentzio taldeak erabili ziren, hots, hiru ikerketetan ez zen kontrol talderik ezarri. Beraz, ezin da guztiz jakin tekniken eraginkortasuna zein izan zen, izan ere, gerta zitekeelako teknikak ezarri zirenetik medikazio akatsek eta etenaldiek jaitziera orokorra izatea.

Prestaketa fasean **medikazio dispensadore automatikoek** (*Automated dispensing system* ingelesez, **ADS**) akatsak murrizten laguntzen duten azaleratzen zuen ikerketa bakarra aurkitu

zen. Chapuis et al-en (2010) ikerketan ikusi egin zen prestaketa faseko medikazio akatsak 42tik 26ra murrizten zirela ADS-en erabilerari esker, murrizketa hau estatistikoki esanguratsua ($p=0.017$) izan zelarik³⁴. Hala ere, ikerketa soil batekin ezin daiteke ziurtatu prestaketa fasean ADS-en eraginkortasuna zein den.

ADMINISTRAZIO FASEAN MEDIKAZIO AKATSAK MURRITZEKO ESTRATEGIAK

Prestaketa fasean bezala, administrazio fasean **etenaldiak murrizteko estrategiak** garatzea oso garrantzitsua izango da, etenaldien eta medikazio akatsen murrizketa eragiteko asmoz.

Westbrook et al-ek (2017) "*Do not interrupt*" teknika erabili zuten administrazio fasean ematen ziren etenaldiak murrizteko. Teknika hau 5 interbentzioz osaturik zegoen: 1. erizainek "*Do not interrupt*" esaldia zeraman txalekoa jantzita eramatea, 2. erizaintzako tailerrak teknikaren inguruan 3. osasun langileentzat hezkuntza saioak, 4. pazienteei teknikaren inguruan informazioa ematea (triptikoetan informazio esanguratsuen bildu zen eta pazienteen artean banatu ziren hauek) eta 5. seinale informatiboak jartzea unitate ezberdinetan. Ikerketan, teknika hau interbentzio taldean soilik ezarri egin zen, eta kontrol taldean ez zen inolako interbentziorik egin etenaldiak murrizteko asmoz. Interbentzio taldean, 100 administrazioko ematen ziren etenaldiak 56tik 38ra murriztu egin ziren "*Do not interrupt*" teknika erabiliz, murrizketa estatistikoki esanguratsua ($p<0.0001$) izan zelarik. Gehien murriztu ziren etenaldiak beste erizain batzuek eragiten zituztenak izan ziren, teknika ezarri aurretik 31 etenaldi ematen zirelarik 100 administrazioko eta ostean soilik 20. Kontrol taldean, aldiz, etenaldi kopurua berdin mantendu zen ikerketak iraun zuen bitartean³². Kontuan izan behar da ausazko entsegu kliniko bat izan zela Westbrook et al-ek egin zuten ikerketa, eta ikerketa mota honek ebidentzia zientifikoko maila altuena duena dela martxan jarri den teknikaren eraginkortasuna neurtzerako orduan.

Txalekoaren erabilera prestaketa fasean ematen diren etenaldiak murrizteko teknika eraginkorra izateaz gain, Verweij et al-ek (2014) "*Do not disturb, medication round in progress*" idatzita zeraman txalekoaren eraginkortasuna ere neurtu zuten administrazio faseko medikazio akatsak gutxitzeko asmoz. Honen erabilerari esker, medikazio akatsak %66an murriztu ziren, akats kopurua 432tik 120ra murriztuz, murrizketa estatistikoki adierazgarria ($p<0.05$) izan zelarik. Gehien murriztu ziren medikazio akatsak paziente ezegokia (194 akats vs 119), dosi ezegokia (16 akats vs 0) eta ordutegi ezegokia (91 akats vs 1) izan ziren³¹.

Medikazio dispentsadore automatikoak (ADS-ak) ere administrazio akatsak murrizteko tresna bezala definitzen ditu bibliografiak. Cousein et al-ek (2014) ADS-ak medikazio akatsen murrizketan eragina zuen ikertu zuten, ikerketan *Ward Stock System* (WSS) eta *Unit Dose Dispensing System* (UDDS) dispentsazio sistemak konparatu zituztelarik. WSS-an farmakoak unitatean kantitate handitan biltzen dira eta gero erizainak pazientearen beharren arabera hartzen ditu farmakoak; eta UDDS sisteman, aldiz, farmaziatik 24 orduko pazienteak behar izango dituen medikazioak bidali egiten dira. Ikerketak iraun zuen bitartean, WSS sistemarekin 74 medikazio akats egin ziren, eta UDDS sistemarekin, aldiz, 41, azken honek %53an

medikazio akatsak murriztu zituelarik ($p < 0.001$). Bai eta hainbat medikazio akats mota murriztu egin zirela azaleratu zuten emaitzek: omisioa (34 akats vs 32), dosi ezegokia (15 akats vs 4), farmako ezegokia (18 vs 1 akats) eta ordutegi ezegokia (7 vs 4 akats). Horrez gain, ikusi egin zen UDDS sistemari esker pazienteen %19.9ak soilik pairatu egiten zuela medikazio akats bat, WSS sistemarekin %30.4ak pairatzen zutela kontuan hartuz³⁵. Hala ere, aipatu behar da ikerketa honen lagina urria izan zela, unitate bakar bat izan zelako Cousein et al-ek hautatutako lagina.

Bi ADS sistema horiek ere Al Adham et al-ek (2011) konparatu zituzten Gazako bi ospitale desberdinetan egindako ikerketa batean. UDDS sistemarekin medikazio akatsak modu adierazgarri batean murriztu egin ziren WSS sistemarekin konparatuz, medikazio akatsak 600 izan zirelarik WSS sistemarekin eta 496 UDDS-rekin ($p = 0.038$). Kasu honetan ere, hainbat medikazio akats mota murriztuak ikusi ziren, nahiz eta adierazgarritasunean ez zen bat ere ez murriztu³⁶. Hala ere, klinikoki teknika eraginkorra izan zela esan daiteke. Kontuan hartu behar da neurketak ospitale ezberdinetako unitateetan egin zirela, eta neurketa bakarra egin zela ospitale bakoitzean. Beraz, ezin da jakin ospitale bakoitzean ikerketa egin aurretik zer medikazio akats kopuru zegoen.

Aitzitik, prestaketa atalean aipatzen den Chapuis eta kolaboratzaileen (2010) ikerketan, ikusi egin zen soilik prestaketa faseko medikazio akatsak murriztu egiten zirela. Izan ere, Frantzia egindako ikerketa horretan azaleratu egin baitzen ADS-ak administrazio faseko akatsak murrizten ez zituela. Interbentzio taldean UDDS sistema ezarri arren, akats hauek ez ziren gutxitu, handitu baizik, murriztu egin zen akats mota bakarra dosiarekin erlazonaturikoa izan zelarik. Ikerketa honekin azaleratu zen ADS-ei esker pazienteraino iristen ez ziren akatsak (sasigertaerak) %35ean murriztu egiten zirela³⁴.

3 ikerketa hauek kontuan hartuta, ez da argi geratzen ADS-ek medikazio akatsak murrizten dituzten edo ez. Alde batetik, lehen aipatu moduan Cousein et al-en lagina eskasa izan zelako. Eta beste alde batetik, Cousein et al eta Al Adham et al-en ikerketetan kontrol talderik ez zegoenez, ezin zen ziurtatu akatsen murrizketa ADS-ei esker zen edo ez. Chapuis et al-en ikerketan, ordea, kontrol taldea barneratu zela hartu behar da kontuan.

Barra kodearen bidezko administrazioa (*BarCode Medication Administration* ingelesez, **BCMA**) eraginkorra da medikazio egokia paziente egokiari, dosi egokian eta ordu egokian administratzeko, hots, farmakoen administrazioa modu seguru batean egiteko. Sistema honek 2 atal nagusi izango ditu: alde batetik, eskaneatzeko tresna, eta bestetik, pazientearen eskumuturrekoan dagoen barra kodea eta administratuko den medikazioan dagoen barra kodea. BCMA-arekin, pazientearen eskumuturrekoa eta administratuko zaion medikazioaren barra kodeak eskaneatu egin behar dira. Preskripzioa eta administratuko den farmakoaren dosia, bidea edo ordua bat ez bada toz, alerta bat agertuko da, erizainari zerbait gaizki dagoela ikustaraziz. Alertarik agertzen ez bada, medikazio hori administratzeko prest dagoela esan nahiko du³⁷.

Poon et al-ek (2010), ospitale bateko 35 unitatek parte hartu zuten ikerketa kuasi-esperimentalean, azalatu egin zen medikazio akatsak BCMA-ari esker murrizten zirela, ordutegiarekin erlazionatutakoak %27.3an eta ordutegiarekin erlazionatuta ez zeudenak (dosi ezegokia, farmako ezegokia etab.) %41.4ean. Ordutegiarekin zerikusia ez zuten akatsen artean gehien murriztu zirenak dosi ezegokia (136 vs 84 akats) eta medikazio ezegokia (64 vs 29 akats) izan ziren, %41.9 eta %57.4ko murrizketa jasan zutelarik hurrenez hurren. Aurkitu ziren murrizketa guztiak, bai ordutegiarekin erlazionatutako akatsek jasandakoak bai ordutegiarekin zerikusia ez zutenek jasandakoak, estatistikoki adierazgarriak ($p < 0.001$) izan ziren³⁷.

Macias et al-ek (2018) Madrilen interbentzio eta kontrol taldeak zituen ikerketa batekin emaitza kontraesankorrak lortu zituzten. Alde batetik, interbentzio taldean (tumore solidoak zituzten pazienteak) akatsak %22an murriztu ziren BCMA-arekin ($p < 0.001$), akatsak 595etik 495era murriztuz. Eta bestetik, kontrol taldean (tumore hematologikoak), ordea, akats hauen prebalentzia handitu egin zen BCMA-aren erabilerarekin, akatsak 91etik 152era handituz; %8ko igoera jasan zutelarik. Handipen hau, ordea, ez zen estatistikoki esanguratsua izan ($p = 0.3$). Ikertzaileek interbentzio taldean adierazgarriak ziren murrizketak ikusi zituzten medikazio ezegoki, omisio eta dosi ezegoki kategorietan³⁸. Hala ere, ikerketan parte hartu zuten 715 pazienteak kontrol eta interbentzio taldeetan banatu zituzten pazienteen ezaugarrietan oinarrituz (tumore mota), eta ez talde bakoitzean erabiliko zen teknika kontuan hartuz.

Aurkitutako beste ikerketa batek, ordea, ez du BCMA-aren eta medikazio akatsen murrizketaren artean erlaziorik aurkitzen. Bowers eta beste kolaboratzaileen (2015) ikerketa bitartean, 70 medikazio akats eman ziren, horietako 40 BCMA-aren erabilerarekin eman zirelarik; beste 30 akatsak BCMA teknologia ezarri aurretik eman zirelarik. Hala ere, akatsen hazkuntza hau estatistikoki ez zen adierazgarria izan ($p = 0.65$)³⁹. Esan beharra dago ikerketa honen lagina aurreko beste bi ikerketen lagina baino txikiagoa izan zela, 6 unitate barneratu zirelarik ikerketan.

Macias et al-en (2018) eta Bowers et al-en (2015) ikerketei dagokienez, kontuan hartu behar da BCMA ez duten unitateak, kontrol taldeak alegia, ez zirela barneratu ikerketan, beraz, ezin zen jakin medikazio akatsen murrizketa edo handipena soilik BCMA-aren eraginez izan zen edo kontrol unitateetan berdina gertatzen zen. Poon et al-en (2010) ikerketan, ordea, kontrol talde bat barneratu zen, eta beraz, akatsen murrizketa BCMA-aren erabilerari esker izan zela jakin zitekeen.

Hala ere, hiru ikerketa hauek sesgo nagusi bat dute komunean, guztietan erizainek ikerketa batean parte hartzen ari zirela zekitelaren, bai eta beren lan egiteko modua behatzen ari zirela ere bazekiten. Horren ondorioz, beren jarduteko modua alda zezaketen ikerketaren helburua lortzeko, hots, emaitza positiboak lortzeko asmoz.

Nahiz eta BCMA-ari buruz barneratu diren ikerketa guztiak honen eraginkortasunari buruko iritzi berdinak ez izan, erizainek BCMA-a medikazioa modu seguru batean administratzeko tresna gisa ikusten dute. Rack et al-en (2012) ikerketan parte hartu zuten 220 erizainen %95-88

bitartean aipatu zuten medikazio egokia, dosi egokian eta pertsona egokiari administratzeko modu segurua zela barra kodearen erabilera. Horrez gain, ikerketan BCMA ez erabiltzearen arrazoiak zeintzuk ziren ere biltzen ziren, hurrengoak zirelarik ohikoenak: larrialdi egoera izatea, eskumuturrekoan dagoen barra kodeak akatsak ematea eta eskaneatzeko tresna ondo ez funtzionatzea⁴⁰.

Beste prebentzio estrategia bat **profesionalei eskainitako hezkuntza** litzateke. Errebisio bibliografiko honetan, 3 artikulua barneratu dira zeinetan 3 heziketa modu desberdin azaltzen diren, medikazio akatsen murrizketan eragiten dutenak.

Ford et al-ek (2010) egindako ikerketan, ohiko hezkuntza tradizional eta simulazioan oinarritutako hezkuntza konparatu egiten ziren. Alde batetik, hezkuntza tradizionala akatsen soluzio eta ondorioen eta administrazio mota egokiez osaturiko hitzaldi batez osaturik zegoen. Eta bestetik, simulazioan oinarritutako hezkuntza simulazio kasu ezberdinak ziren, zeinetan erizainek akatsei aurre egin behar zieten eta administrazio teknika egokiak erakutsi behar zituzten. Ikerketan parte hartu zuten 24 erizainak 2 taldetan banatu zituzten, ZIU-an lan egiten zuten erizainek hezkuntza tradizionala jaso zutelarik eta unitate koronarioan lan egiten zutenak simulazioan oinarritutakoa. Hezkuntza jaso ostean, unitate koronarioan (simulazioan oinarritutako hezkuntza) egindako 2 neurketetan, medikazio akatsak murriztu egin zirela ikusi egin zen, lehen neurketan medikazio akatsen ehunekoa %4a zelarik eta bigarren neurketan %6.2a. Kontuan izanda hezkuntza aurreko neurketan akatsen ehunekoa %30.8a zela, murrizketa hau estatistikoki adierazgarria ($p < 0.001$) izan zen. ZIU-an (hezkuntza tradizionala), ordea, akatsen ehunekoa ez zen murriztu, baizik eta bigarren neurketaren ostean akatsen ehunekoa handitu egin zen %20.8tik (hezkuntza aurretik) %36.7ra⁴¹. Hala ere, ikerketa honetan azaleratzen den eraginkortasuna ez da guztiz fidagarria, ZIU-ak unitate koronarioak baino paziente gehiago jasotzen zituelako eta bi unitateetako pazienteen ezaugarriak desberdinak zirelako.

Txilen, Romero et al-ek (2013) PIP programa (*preventive interventions program*) sortu zuten medikazio akatsak murrizteko asmoz. Programa honen ardatzetako 2 hezkuntzan oinarritzen ziren. Batetik, trebakuntza eta motibazioa landu egiten ziren pazientearen segurtasunari, medikazio sistemei etab. buruzko hitzaldi batekin eta beste programa batzuen eraginkortasunari buruzko (motibazioa lantzeko asmoz) hitzaldiekin. Bestetik, medikazioaren erabileraren estandarizazioa landu egiten zen farmakoen inguruko informazioa eskainiz, bai bateraezintasunaren inguruko informazioa eskainiz bai farmakoen organizazioa landuz. Programa honen ezarpenaren ostean, medikazio akatsek, orokorrean, %31ko murrizketa jasan zuten, administrazio akatsak %50ean murriztu zirelarik (26 akats vs 13). Bi murrizketa hauek estatistikoki adierazgarriak ($p < 0.05$) izan ziren. Horrez gain, ikerketa egindako ZIU-an medikazio akats bat pairatzen zuten pazienteen ehunekoa ere modu esanguratsu ($p < 0.05$) batean murriztu egin zen, zehazki %31.7 batean gutxitu egin zen (%41.1 vs %28.6)⁴².

